

azpeitian zer

126. zenbakia

udal aldizkaria

2010eko martxo



garapena
denon ardura

*Eskualdeko hazkundearen alde
lanean ari da Iraurgi Lantzen*

700 urte
azpeitia



zer?



2 Telefono interesgarriak

12 Erreportajea

3 Proposamenak, kexak...

14 Motxean

4 Azpeitia ezagutzen lehiaketa

14 Urkome sariak

9 Urteurreneko ekitaldiak

15 Udal erabakiak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Paper birziklatuan eгина



Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

telefono interesgarriak

Azpeitiko Udala

Zentralita	943 15 72 00	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzaitletza	943 15 71 89	Ingurugiro Etxea		1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Fundazioa	943 15 17 13	2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Kontsumitzaileen		DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	N.A.N. Bulegoa	943 15 71 60	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 51 71	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48		
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Eguneko Zentroa	943 15 74 96			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Liburutegia	943 15 71 95	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Suhiltzaileak	112	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Igerilekua	943 81 41 21	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Polikiroldegia	943 81 30 69	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearreetan 10:00etatik 13:30era eta	
Euskara Patronatua	943 81 45 18	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	

Proposamenak, kexak...



Zaborrontziak

Azpeitiko zaborrontziak zergatik ez dira Azkoiti, Zarautz edota Donostiakoak bezala hankarekin irekitzen direnak?

Nerea Larrañaga

Juan XXIII

Kalera datorren jende askok Juan XXIII auzunean aparkatzen du bere kotxea. Eta festetan, hileta egunetan eta asteburuetan kotxe asko pilatzen da auzunean. Kontua da Frantziskanetako zelaia eta auzunea banatzen duten paretan ondoko aparkalekuek marrak margotu gabe dituztela eta askotan, aparkalekuak ondo aprobetxatu gabe egoten direla. Hiru kotxe kabitzen diren lekuan, igual 2 daude aparkatuta. Nire eskaera, beraz, Juan XXIII auzunean (Frantziskanak aldera) aparkalekuetan marrak margotzea da.

Leire Otaegi

Erdi kaleko pasagunea

Zer dela eta jarri dituzue berriro Eliz kale eta Erdi kale arteko pasaguneko atea? Hasiera batean larunbat gauetan itxita egoten zen, gero aurreko Udalak

“probatzeko” irekitzea pentsatu zuen. Etxepekoek eskatu genuen gauza bakarra atea kentzea izan zen, izugarritzko zarata ateratzen zutelako larunbat gauero kolpatu eta kolpetik ixtean. Irekita mantendu behar badituzue, zertarako dira atea? Erantzun mesedez.

Ander Odriozola

Haurren igerilekua

Larunbat goizetan izaten dut denbora nire seme-alabekin pistinara joateko. Berauek 4 eta 2 urte dituzte eta noski, pistina txikian ibili behar dute. Larunbat goizero ume txikiengatik ikastaroak egoten dira pistina txikian eta bertako monitorak ezin dugula bertan ibili esaten digu. Beraz, zer egin behar dugu larunbat goizetan gure umeekin igerilekura joatea nahi badugu? Ikastaroa ordaindu? Hau al da igerileku municipal batek eman beharko lukeen zerbitzua? Nire ustez ez. Mesedez utzi iezaguzue gure seme-alabekin jai dugun egunetan igerileku municipallean disfrutatzen.

Aritz Orbegoza

Amnistiako taberna

Ez al da Udala ostalaritzako legeak betetzeko arduraduna? Amnistiako “tabernagatik” diot, ez dute zarataren aurkako babesik, ez ate bikoitzik, ez horma sendorik... Nolatan baimendu dezake horrelakorik Udalak? Zer gertatu behar du bizilagunen eskubideak

kontutan hartzeko? Salaketa bat jarri arte egon behar al du Udalak? Ez dut uste horrela Alde Zaharra biziberrituko denik, inork ez baitu nahi egoera honetan bizi. Mesedez, erantzun gauzak okerrera egin aurretik.

Ander Odriozola

Azterketa psikoteknikoa

Psikoteknikoa egitera joaten garenean, izugarritzko denbora galtzen da; ordua hartzeko eta ondoren txandaren zain. Ez al da hobe “ixpizioan” orduak edo txandak ematen joatea? Denbora eta pazientzia gutxitze aldera.

Jose Mari Sarasola


Euskal Herria auzunea

Euskal Herria auzunean, haurtzaindegia dagoen etxeen eta alboko etxe blokeen artean dagoen tartean, etxepekoen gas butanoak dauden artean, orain arte bertan autoak aparkatzen genituen, orain ordea, marra horia margotu dute bertan aparkatu ez dadin. Erabaki horrekin ez gaude inolaz ere ados, izan ere, guztiok ordaintzen ditugu herri honetan zergak. Zerga horien artean zaborrena dago. Beraz, gure herriko barranderoek orduan garbitu dezatela orain marra horia margotu duten zati hori ere, inoiz ez baita makina tarte horretatik pasatzen. Eta noizbait, lurra hautsita agertzen bada, Udalak ordainduko al du bertako konponketa?

Euskal Herria auzoko bizilaguna



www.azpeitia.net



Sartu zaitez www.azpeitia.net udal webgunean

- **Tramiteak eta ordainketak** etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.
- **Udal albisteak** uneoro ezagutzeko.
- Zure **kexa, iritzi eta iradokizunak** plazaratzeko.
- Plenoetako **aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra** eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.

- Herriaren inguruko **informazio erabilgarria** eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

- **Sexologia zerbitzua on-line:** hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezka on-line erantzungo ditu.
- **Udal liburutegia:** bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.

www.azpeitia.net. Udala zure eskura, klik batean.



OINARRIAK

1. Parte hartzen dutenen adina kontutan izanik, bi mailatan banatzen da lehiaketa, hamalau urte 2010. urtean beteko dituzten bitartekoak (GAZTEAK) batetik eta adin horretatik gorakoek bestetik (HELDUAK).
2. Maila bateko eta besteko orriak banatuko dira 2010ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, eta maiatzaren hasieran, bakoitzean 20 galdera egiten direla, eta bakoitzarentzat lau erantzun ematen direla.
3. Erantzun horietako bat bakarra da zuzena eta bera aukeratu ondoren, gurutzetxo bat (X) jarri beharko da egokitzen zaion laukitxoan.
4. Galdera guztiei edo ahalik eta gehienei erantzun ondoren eta apirilaren 15a baino lehen, Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan egongo diren gutunontzietan sartuko da galdera orria.
5. Derrigorrezkoa egiten da, gutunontzian sartu aurrez, galdera orria guztiz betetzea, hau da, izen abizenak, adina, helbidea eta partaide bizi den herriaren izena idaztea.
6. Partaide bakoitzak, galdera orri bat bakarra aurkez dezake aipaturiko hil bakoitzean.
7. Bost galdera sorta horiek osatuko dute AZPEITIA EZAGUTZEN 2010 LEHIAKETA, eta irabazletzat erantzun egoki gehienematen dituztenak hartuko dira.

8. Sariak, honako hauek izango dira aipaturiko bi maila horietan:

Helduen maila

1. Saria: Bi lagunentzat astebukaera bat Iparraldeko landa-turismo etxe batetan.
2. Saria: Bi lagunentzat astebukaera Hegoaldeko landa-turismo etxe batetan.
3. Saria: Bi lagunentzat afaria Larrañaga jatetxean.

Gazteen maila

1. Saria: Ordenagailu eramangarria.
2. Saria: Informatikako denda batean gastatzeko txartel bat
3. Saria: Kirol-denda batean gastatzeko txartel bat

9. Berdinketarik balitz, zozketa baten bidez erabakiko litezke aipaturiko sariak.

10. Udalak herriko jai nagusietan banatuko ditu sariak eta aurretik galdera guztien erantzun zuzenak ezagutaraziko dira.

OHARRA:

Lehiaketako orri hauen fotokopiak onartuko dira.



HELDUEN MAILA

1 Omenaldi berezi bat eskaini zitzaion herriko aizkolari handi bati 1936ko urtarrilaren 5ean. Nori?

- Jose Inazio Orbegozo *Arria I*
- Jose Aranburu *Keixeta*
- Inazio Amutxastegi *Arlizeta*
- Inazio Iriarte *Igartza*

2 Iban Otaegi azpeitiar pilotariak, bigarren mailako lau t'erdiko txapelketa irabazi zuen 2000ko abenduaren 8an. Noren aurka?

- Enrike Galartza
- Larraondo
- Mendizabal
- Patxi Ruiz

3 Udalak Landetako biribilgunean *Burdina lantzen* deituriko eskultura inauguratu zuen 2002ko azaroaren 30ean. Nork egina da?

- Diego Cruz
- Nestor Basterretxea
- Antonio Oteiza
- Markos Larralde

4 Iñaki Azpiazu, azpeitiar apaiz gogoratua, 1988ko martxoan hil zen. Non?

- Azpeitian
- Parisen
- Buenos Aires
- La Habanan

5 Euskal Ikaskuntza Elkarteak antolaturik, omenaldi bat eskaini zitzaion idazle ezagun bati 1928ko apirilaren 3an. Nori?

- Jose de Artetxe
- Gurutz Ansola
- Karmelo de Etxegarai
- Inazio Perez Arregi

6 Esango al diguzu nor zen *Carnicerito de Azpeitia* izenpean ezagutu zen toreatzaile azpeitiarra?

- Santi Sudupe
- Rafael Olaizola
- Biktor Oiarzabal
- Zirilo Astigarraga

7 Bi korrikalari keniatar 10.000 metroan aurrez eginiko marka hausten saiatu ziren 1992ko apirilaren 5ean. Ez zuten lortu.

Nork eginiko marka zen?

- Klemente Arrue
- Aiako Txikia
- Mariano Haro
- Ezekiel Bitok

8 Omenaldi berezi bat eskaini zitzaion *Arria I.* azpeitiar aizkolariari 1980ko apirilaren 27an. Non?

- Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan
- Azpeitiko zezenplazan
- Donostiako Balda pilotalekuan
- Donostiako zezenplazan

9 Azpeitiar arkitektu eta obra maisu ospetsu bat hil zen 1795eko maiatzean. Nor?

- Sebastian de Lekuona
- Frantzisko de Ibero
- Inazio de Ibero
- Jeronimo de Larrea

10 *Agerre I.* eta *Garatxabal* neurtu ziren Azpeitiko zezenplazan 1952ko azaroaren 9an, 152 kilotako harri kubikoarekin. Ordu erdian, lehenenak 78 aldiz jaso zuen. Zenbat aldiz bigarrenak?

- 66 jasoaldi
- 70 jasoaldi
- 76 jasoaldi
- 80 jasoaldi

11 Akilino Amezua organulariaren omenez hitzaldi bat eskaini zen Azpeitiko Udaletxean 1997ko urriaren 21ean. Esteban Elizondo jaunarekin batera, azpeitiar bat izan zen hizlari. Nor?

- Jose Antonio Azpiazu
- Jose Inazio Alberdi
- Jose Luis Franzesena
- Iñaki Alberdi

12 Azpeitiar mendizale ezagun bat hil zen 2000. urteko abuztuaren 12an. Nor?

- Jose Luis Orbegozo
- Asier Urkizu *Beltza*
- Pako San Sebastian
- Jose Urbietta *Takolo*

13 Zer nolako estiloa du Antxieta etxearen aurreko aldeak bigarren solairutik gora?

- Erromanikoa
- Mudejarra
- Gotikoa
- Errenazimendua

14 *Lertxundi* deituraz ezagutu zen azpeitiar txirrindulari batek estatuko ziklo-kross txapelketa irabazi zuen Donostian 1931 urtean. Nor zen?

- Joxe Mari Garmendia
- Eusebio Bastida
- Julian Aranburu
- Inazio Garmendia

15 1977an Elosiaga auzoan jaiotako emakume batek maila bikaina agertu zuen aizkolaritzan, batez ere azken mendearen amaieran. Nork?

- Itziar Goenaga
- Maite Eizagirre
- Maria Agirre
- Alaitz Etxeberria

16 Caracas-eko Gipuzkoako Konpainia Errealan zuzendari izendatua izan zen 1738an azpeitiar bat. Nor?

- Joan López de Garin
- Joxe Inazio de Amenabar
- Bernardo de Eizagirre
- Joseph de Iturriaga

17 1980an *Egunsenti biluzia* poema liburua argitaratu zuen azpeitiar batek. Nork?

- Xabier Aldai
- Enekoitz Esnaola
- Joxe Luis Otamendi
- Fernando Morillo

18 Zein urtetan inauguratu zen Urrestillako estalitako pilotaleku berria?

- 1985ean
- 1988an
- 1990ean
- 1992an

19 EITBk Trikitilari Elkartearekin lotura handia izandako azpeitiar bat omendu zuen 2004ko martxoaren 19an. Nor?

- Esteban Larrañaga
- Imanol Arregi
- Joxe Mari Iriondo
- Pedro Odriozola

20 1847an Narrosko Markesak bi errota zituen Nuarbe eta Aratz Errekako urak Urrestilla inguruan bat egiten zuten tokitik hurbil. Batek Antxieta-Olalde zuen izena, eta besteak?

- Olatxo
- Igarate
- Olajaun
- Aritzuriaga

Partaidearen datuak:

Izena: _____ Abizenak: _____

Helbidea: _____ Herria: _____ Urteak: _____

Telefono zb.: _____

Oharra: Derrigorrezkoa da apirilaren 15a baino lehen Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan dauden gutunontzietan uztea lehiaketako orri hau.





GAZTEEN MAILA

1 Azpeitiko lehen Danborrada 1957an kaleratu zen, baina noiz lehen karroza?

- 1957an
- 1958an
- 1959an
- 1960an

2 Esango al diguzu zein auzotan dagoen Arraio baserria?

- Elosiaga
- Izarraitz
- Odria
- Oñatz

3 Azpeitiar futbolari bat estatuko selekziora iritsi zen. Nor?

- Roberto Olaizola
- Tomas Orbegozo
- Juan Antonio Larrañaga
- Bixente Oiarzabal

4 Santos Iriarte Errekartetxo harri jasotzaileak, kirol horri utzi ondoren, beste batean aritu zen. Zertan?

- Lucha libre deiturikoan
- Boloketan
- Aizkolaritzan
- Boxeolari

5 Azken urteetan, Azpeitiko bi antzoki edo zine aretoak lurreratu dira. Bat Zelaitxo zen eta bestea?

- Luminor
- Soreasu
- Ilunpe
- Etxe-zuri

6 Azpeitiko Udalak *Historias de Azpeitia* deituriko liburua argitaratu zuen 1998an. Nork idatzia?

- Joxe Inazio Alberdi
- Inazio Mari Arteché
- Imanol Elias
- Ramon Etxezarreta

7 Gaur egun anbulatorioa dagoen tokia zer zen lehenago?

- Epaitegia eta gartzelak
- Errotak
- Antzokia eta zinema
- Azoka plaza

8 Berrosueta baserrien inguruan dagoen mendiska baten inguruko eztabaidaren erabakia hartu zuten azkoitiarrek eta azpeitiarrek 1930ean. Zein mendiska?

- Sistiaga
- Pagotxeta
- Txalintxo
- Urbi

9 Azpeitiar batek sortutako musika du *Mariñelak* deituriko zartzuelak. Norena?

- Toribio Eleizgarai
- Joxe Luis Frantzesena
- Joxe Mari Altuna
- Lukas Guridi

10 Esango al diguzu noiz koroatu zuen Azpeitiko herriak Olazko Andre Maria, patroitzat harturik?

- 1947an
- 1952an
- 1957an
- 1980an

11 Zein urtetan eskaini zuen lehen emanaldia Itsasiko Ttuntturro taldeak?

- 1973an
- 1975ean
- 1979an
- 1981ean

12 EITBren eskutik, omenaldia eskaini zitzaion herriko pandero jole bati 2005eko martxoaren 19an. Nori?

- Imanol Arregi *Iturbide*
- Esteban Larrañaga
- Joxe Mari Iriondo
- Martzelo Alberdi

13 Urrestillak eta beste auzo batek Sanjuanetan ospatzen dituzte jai nagusiak. Zein auzotan?

- Elosiaga
- Landeta
- Loiola
- Oñatz

14 Noiz inauguratu zen Urrestillan Herri eta Osasun gunea?

- 1998an
- 2002an
- 2005ean
- 2006an

15 Azpeitiko Udal Musika Bandak, *Azpeitian zezenak* deituriko CDa aurkeztu zuen. Baina, zein urtetan?

- 2000an
- 2002an
- 2004an
- 2006an

16 Zein urtetan hasi zen lanean Loiola Herri Irratia?

- 1957an
- 1959an
- 1961ean
- 1964an

17 Esango diguzu *Niño del Arrabal* izenarekin ezagutu zen toreatzaile azpeitiarraren izen eta abizena?

- Zirilo Astigarraga
- Inazio Sudupe
- Rafael Olaizola
- Inazio Astigarraga

18 Bi apaiz donostiar izan ziren Azpeitiko Danborradaren sortzaileek. Beraietako bat Zezilio Apaolaza, eta bestea?

- Juan Agirre
- Baltasar Iglesias
- Joxe Lekuona
- Pedro Amenabar

19 Nor zen Iraurgi bailarako Alkate Nagusia, Azpeitiko herria sortzean?

- Fernan Rui de Rojas
- Gonzalo de Alvarado
- Santxo Ruiz de Auzmendi
- Domingo Lopez de Arandia

20 Zein urtetan omendu zituen Azpeitiko Kaldereroen Konpartsak bere lehen ohorezko bazkideak?

- 1993an
- 1995ean
- 1997an
- 1999an

Partaidearen datuak:

Izena: _____ Abizenak: _____

Helbidea: _____ Herria: _____ Urteak: _____

Telefono zb.: _____

Oharra: Derrigorrezkoa da apirilaren 15a baino lehen Udal Liburutegian (Enparan dorretxean) edo igerilekuan dauden gutunontzietan uztea lehiaketako orri hau.



Agiri zaharren erakusketan 550 pertsona baino gehiago izan ziren

Martxoan, urteurrenarekin lotutako mahai-ingurua eta hitzaldia izango dira.



Agiri zaharren erakusketaren inagurazioa eta herritarrek dokumentuak ikusten.

Otsailaren 20an izan bete ziren 700 urte Azpeitia herri-gutuna jaso zuela baina data berezia gogoratzeko ekitaldiek aurrera darraie. Besteak beste, udaletxeko beheko aretoan agiri zaharren erakusketa zabalik izan zen bi astetan zehar eta arduradunak gustura agertu dira herritarren aldetik jasotako erantzunarekin: "Oso positiboki baloratzen dugu erakusketa, izan ere, herrian interesa sortu du, asko gainera. Are gehiago, itxi ondoren ere jendea galdezka etorri zaigu ikusteko aukera egongo al den berriz", azaldu zuen Victor Herrerok. Bildutako datei begiratu, 550 pertsona baino gehiago igaro ziren erakusketatik eta herriko bi ikastetxeetako eta Bergarako UNEDeko ikasleak ere izan ziren bertan.

Era berean, urtero herrian egiten den San Josetako Trikitilari jaialdia aprobetxatuz, Antonio Aranaga Aramendi *Auntxa* orain dela 100 urte jaio zela ospatzeko, omenaldi txiki bat egin zen Urrestillan martxoaren 14ean. Eguerdiaren plaka bat jarri zen bere jaiotetxean eta jarraian, trikitilariaren kalejira alai izan zen. Arratsaldean, aldiz, Izarraitz



pilotalekuan egindako jaialdian herriko soinu-joleen historia ezagutzeko aukera izan zen.

Hil honetan zehar izango diren beste ekitaldiei dagokienez, martxoaren 17an mahai-inguruaz gozatzeko aukera egongo da. Emiarraitz Bertsozale elkarte bere 10. urteurrena ospatzen ari da eta Azpeitiko Udalarekin bat eginda, *Bertsolaritza Urola bailaran historian zehar* izeneko proiektuaren aurkezpena izango dute Joxin Iturrioz, Imanol Lazkano eta Jokin Urangak. Saioa 19:30ean hasiko da Enparan Dorretxean.

Azkenik, azpeitiarren hizkera hizpide izango da Patxi Goenaga eta Badihardugu elkarteak eskainiko duten hitzaldi batetan. Gainera, Badihardugu elkarteak martxan duen *Ahotsak* proiektuaren baitan Azpeitian egin diren grabaketak erakutsiko dira. Hitzaldia hilaren 24ean izango da, 19.30ean, Sindikatu Zaharra eraikinean.

Urola Erdia eskualdeko garapena, ESKUBERRI proiektuaren eskutan

Iraurgi Lantzen eta Mondragon Unibertsitateak sustatutako ekimenak Azpeitia eta Azkoitiko eragileak biltzen ditu.



Eragileak proiektuaren baitan egindako bilera batean.

Krisi garaian aurrera begiratzea zaila gerta daiteke askotan, baina ESKUBERRI egitasmoari esker, Urola Erdiko garapen ekonomiko eta sozialean lanean dihardute eskualdeko enpresa eta eragile desberdinak. "2008 urtearen amaieran Mondragon Unibertsitateko ikertzaile talde bat harremanetan jarri zen gurekin proiektua gure artean martxan jartzeko esperientzia pilotu bezala. Ideia ona iruditu zitzaigun", agertu du Iraurgi Lantzen garapen agentziako zuzendaria den Jesus Agirrek.

"esperientzia pilotu bezala gure artean martxan jartzeko ideia ona iruditu zitzaigun"

2009ko otsailaren 19an egin zen aurkezpen bilera Azkoitiko Intsausti jauregian eta bertan, Azpeitia eta Azkoitiko industria, nekazaritza, hezkuntza, zerbitzu eta osasun arloko 40 eragile bildu ziren. Helburua nagusia ekonomiko eta sozial iraunkor bat bermatzea, eta horretarako, eragileen arteko elkartasuna eta parte-hartzea sustatzea beharrezkotzat ikusten zen.

Prospektiba Estrategikoa

Arduradunek aurreratu dutenez, proiektu berritzailea garatzeko erabiltzen ari diren metodologia Prospektiba Estrategikoa izenekoa da eta 10 urtera begira egiten du lan. "Interesgarria ikusi genuen

metodologia hau erabiltzea, gero bailara osora aplikatu genezakeelako", gaineratu du Agirrek. Honela, eragileak lantaldean banatu dira egungo egoeraren analisia egin eta etorkizunean garatuko diren ildo estrategikoak identifikatzeko.

Metodologia hiru fase desberdinetan banatzen dira. Honela, lehenbiziko fasean aurkezpena, bailararen iraganeko eta oraingo diagnostikoak eta kanpo joeren azterketa egin ziren.

Bigarren faseari dagokionez, eragileak lantalde desberdinetan banatu ziren kanpo joerek eskualdean izan ditzakeen eraginak aztertu eta etorkizuneko eskenatokiak definitu eta identifikatzeko helburuarekin. Amaitzeko, hirugarren eta azken fasean jarraitu beharreko estrategiak definituko dituzte.

"izan daitezkeen egoera desberdinak imaginatu behar ditugu (krisiak, oparoaldia ekonomikoa...)"

Proiektua amaitutakoan, eskualdeko enpresa eta eragileek etorkizunean izan daitezkeen gorabeherei aurre egiten jakingo dutela espero dute arduradunek: "Hemendik urte batzuetara izan daitezkeen egoera desberdinak imaginatu behar ditugu (krisiak, oparoaldi ekonomikoa...), eta horien aurrean, sektore bakoitzeko enpresek aurrera nola egin jakin ahal izan dezaten. Honela, kasu bakoitzean zer egin behar den, nork eta nola egin behar diren ezagutzeko plana izan dezakegu", adierazten du Iraurgi Lantzeneko zuzendariak.



Julian Eizmendi eta Guillermo Ulicia.

Hazkundera eta lehiakortasuna, herritarren ongizatearen oinarri

Loiola Berrikuntza Fundazioak eta Innobasque-k lankidetzak akordioa sinatu dute.

Urola Erdia eskualdeko garapenera eta lehiakortasunaren alde lan egitea. Hori da Loiola Berrikuntza Fundazioak eta Innobasque-k otsailan sinatu zuten lankidetzak akordioak duen helburu nagusia. Bestalde, Euskal Herriko bigarren eraldaketa ekonomikoan elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu zuten.

Julian Eizmendi Loiola Berrikuntza Fundazioako lehendakariak eta Guillermo Ulicia Innobasque-ko presidentek sinatutako hitzarmenaren xedea lankidetzak eta koordinazio esparru bat ezartzea da Loiola Berrikuntza Fundazioak eta Innobasque-ren artean, berrikuntza eta mobilizazio sozialeko garapenera proiektuaren baitan etorkizuneko ekintzak garatu ahal izateko. Modu honetan, eta koordinazioa lantzeko asmoz, Loiola Berrikuntza Fundazioa Inno-

basque-ko bazkidea da eta gainera, azken erakunde honen Zuzendaritzako Kontseilu Betearazlean hartzen du parte. Era berean, Innobasque-k Loiola Berrikuntza Fundazioak antolatutako eztabaida-gune eta lantalde desberdinetan hartuko du parte, beti ere, hitzarmenarekin zerikusia duten programa eta estrategia lanketak direnean.

“balio erantsi handiko jarduera berrien sorkuntza ekarriko baitu”

Iraurgi Lantzen, Urola Erdiko Industrialdea, Antzibar, Biela, Corrugados Azpeitia, Grupo Glual, Grupo Sarralle, Ibarria, Juaristi TSCO eta Sammic erakunde eta enpresek osatzen dute Loiola Berrikuntza

Fundazioa eta martxoaren 25ean aurkeztuko da jendaurrean. Fundazio berriaren funtsezko jomuga edo helburua Urola Erdia bailarako ekonomiaren eta gizartearen garapenera aktiboki laguntzea da, berrikuntza teknologikoa eta ekonomia eta gizarte eraldaketa babestuz, sustatuz eta indartuz. Bailarako lehiakortasuna hobetzeko, berrikuntza, pertsonen garapena eta gaitasunen atxikipena eta erakarpena beharrezkoak ikusten ditu fundazioak, “horrek bertako biztanleen ongizatea ekarriko duen balio erantsi handiko jarduera berrien sorkuntza ekarriko baitu”.

Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia, irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatua da eta Euskadiko eremu guztietan berrikuntza, espiritu ekintzailea eta sormena koordinatu eta bultzatzeko sortu zen.

Baigera I taberna ireki dute



Kudeatzaile eta itxura berria estreinatzen ditu

baigera I eraikineko tabernak bere ateak zabaldu ditu berriro. Plaza Txikian kokatzen den tabernaren inaugurazioa otsailaren 23an izan zen eta jendez gainezka egon zen bertako kudeatzaile berriek eskaini zuten mokaduz goatzeko. Bestalde, tabernak itxura berria estreinatzen du, izan ere, itxita egon den bitartean berrikuntza desberdinak egin dituzte; besteak beste, sukaldeko argindarra eta ur azpiegiturak hobetu dira, jangelako tokia banatu da bereizgailuen bidez, tabernarako sarrerak egokitu dira eta sabaia eta paretak margotu dira. Igeltserotza eta margotze lan desberdin hauek egiteko, Azpeitiko Udalak abian duen pertsonen integrazioarako Auzolan izeneko programako zortzi lagunek hartu dute parte. Era berean, estreinatzen duen itxura berriaz gain, kudeatzaile berriak izango ditu Baigera I eraikineko tabernak, ostalaritza munduan eskarmentua duten hiru emakumek hartu baitute bertako ardura. Azpeitiko Udal ordezkariak agertu dutenez, "ilusio handiz eta proiektu berriekin iritsi dira".

Udalekuetarako izen-ematea, zabalik



Kanpaina 7 eta 17 urte bitarteko haur eta gazteei zuzenduta dago

gipuzkoako Foru Aldundiak 2010 urteko udako kanpaina abian jarri du dagoeneko eta udalekuetara joateko aukera eskaintzen die lurralde historikoko haur eta gazte guztiei. Udaleku hauek bi programa desberdinetan banatzen dira; alde batetik, 7 eta 13 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa aurkitzen da eta bestetik, berriz, 14 eta 17 urte bitarteko gazteei bideratutakoa. Modu honetan, lehenbiziko taldearen oporraldian parte hartu nahi duten haurrek martxoaren 26a baino lehen eman beharko dute izena eta bigarren taldekoen ekintzetan parte hartzeko izen-ematea, aldi, apirilaren 21etik 29ra bitartean egongo da zabalik. Hala ere, bi kasuetan inskripzioak egiteko hiru aukera desberdin eskaintzen dira; batetik, Azpeitiko Gazte Informazio Bulegoan, bestetik, Foru Aldundiko bulegoetan eta azkenik, www.gipuzkoa.net/oporraldi webgunearen bidez. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskaintza honetaz informazio gehiago jakin nahi duten pertsonak Azpeitiko Plaza Txikian kokatzen den Gazte Informazioaren bulegora jo, 943 157160 telefono zenbakira deitu edo gib@azpeitia.net helbide elektronikora idatzi dezakete.

2011 urteko Danborradan parte hartzeko deialdia zabaldu du Udalak



Talde berriek martxoaren 31a baino lehen eman behar dute izena

San Sebastian jaietako Helduen Danborradan parte hartu nahi duten talde edota elkarte berriek izena eman dezakete dagoeneko Azpeitiko udaletxean. Honela, 2011 urteko urtarrilaren 19an egingo den danborradan irteteko, martxoaren 31a baino lehen eman behar dute izena eta besteak beste, taldearen izena, arduradunen datuak, entitatea dutela frogatzen duen agiria, partaide kopurua eta janzkera izango dira aurkeztu beharko duten dokumentazioa. Eskariari jaso ondoren, Azpeitiko Udalak Danborrada Batzordeari igorriko dizkio eskari horiek, deialdian zehaztutako epearen barruan, eta honek aztertu egingo ditu. Hala egin ondoren, onartzeko edo ez onartzeko proposamena emango du, beti ere arrazoitua. Onarpenaren azken erabakia Azpeitiko Udalak hartuko du eta horren berri Danborradan atera nahi duen urtearen aurreko abenduaren 31rako jakinaraziko zaio talde berriari.

Isabel Vélez lasartearraren erailketa salatu zen



Kontzentrazio hauetan ahalik eta azpeitiar gehien biltzea nahi da

azpeitiko Bilgune Feministak deiturik, Isabel Vélez lasartearraren erailketa salatu zen herriko plazan otsailaren 22an egindako elkarretaratzean. Euskal Herrian indarkeria sexistaren ondorioz emakume bat erailtzen duten bakoitzean deitzen du kontzentrazioa Bilgune Feministak herriko enparantzan eta Azpeitiko Udalak bat egiten du deialdiarekin. 2010 urtean hiru emakume izan dira erailak dagoeneko, "eta tamalez ziur gaude ez direla azkenak izango" adierazi dute Udal ordezkariak. Horregatik, gaiaren inguruan herritarrak sentsibilizatzea beharrezkoa ikusten da: "Ezinbestekoa da herritarrok gai honekiko dugun sentsibilizazioa indartu eta kontzentrazio hauetan ahalik eta azpeitiar gehien biltzea. Guztion erantzukizuna baita emakumeenganako erasoekin amaitzea", gaineratu dute arduradunek. Emakumearen Nazioarteko Eguna zela eta martxoaren 8an beste elkarretaratzea egin zen plazan eta gainontzeko ekitaldiekin batera, balorazio "positiboa" egin dute ordezkariak. Martxoaren 7an, berriz, Lilatoi lasterketa izan zen Donostian eta bertan, Azpeitiko 57 emakumek hartu zuten parte, guztiak ibilbidea bukatuz. Udal Kirol sailak "partaide guztiak zoriondu nahi ditu. Jarrai dezagun herriko kirol-partee hartzea eredugarria izaten", adierazi dute.

Landa eremua indartuz doa

URKOME elkarteak jarduera berritzaileak bultzatzen dituen proiektuak saritu zituen Enparan Dorretxean egindako ekitaldian



Irabazle guztiak erakundeetako ordezkariekin.

anda garapena eta ingurumena uztartzea eta baserriek gizarteari eskaintzen dizkieten zerbitzuen inguruan sentsibilizatzea, landa eremuko ekimen edo jarduera berritzaileak sarituz. Hauxe da Urkome Sarien helburu nagusia. Urola Kostako Landa Garapeneko Urkome elkarteak eta Ingurugiroa Etxea Fundazioak elkarlanean antolatutako lehenbiziko edizio honetara 16 proiektu aurkeztu ziren guztira eta 11 izan ziren sarituak.

“Ingurumen ikuspegia lehen sektorearen dibertsifikazioa lantzeko aukera da”

Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako zuzendari Juan Pablo Medranok “oso interesgarritzat” jo zuen Urkome elkartearen ekimen berria: “Ingurumen ikuspegia lehen sektorearen dibertsifikazioa lantzeko aukera da eta lanean jarraitzeko ildoa”.

Urkome Sarien lehenbiziko lehiaketa bost ataletan sailkatu da eta bakoitzean bi irabazle izan dira; lehenak 2.000 euro eta bigarrenak, 1.000 euro. Honela, Nekazaritza jardueraren garapena atalean, *Euskal oiloaren hobekuntza eta hazkuntza* bultzatzeko proiektuak eskuratu zuen lehen saria eta Iñaki Izetak jaso zuen. Bigarrena berriz, loritz Igarataundiren *Izarraitz mintegia* lanak lortu zuen. Landa eremuetako bizi kalitatearen hobekuntza bultzatzeko ideietan Hezieko elkarteak burututako *Iragazi biologikoak erabiliz eta lonbrikultura teknikekin hondakin likidoak inertizatze* teknika berrien garapena proiektua izan zen onena eta bigarren postuan, Leire Markuerkiaga eta Gorka Ibañezen *Etxeko uren berrerabilera* gelditu zen.

Aktibitate ekonomikoaren dibertsifikazioa atalean, Urkaiko abeltzainen kooperatibak eskuratu zituen 2.000 euroak *Labeldun behi-haragia oinarri duen zerri gantzik gabeko jaki hotzaren garapena* proiektuari esker. Bigarren saria, aldiz,

Hezieko elkarteak lortu zuen *Zizare haragia txerrien elikagaiaren osagarri moduan* aholkatzeagatik. Bestalde, landa eremuak betetzen dituen funtzioen zehaztapena eta errekonozimendu sailean Aitor Larrañaga azkoitiarrak lortu zuen lehen saria *Zuhaitzak mozteko irizpideak eta gariak zehaztea* lanagatik eta Jon eta Jokin Salegiren *Lursailak egokitu flora eta fauna aldetik ekosistema ezberdinak* garatzeko proiektuak bigarren postua lortu zuen.

Ingurugiro Etxea Fundazioko saria, Itsaso Velasco gasteiztarrantzat izan zen *Etxeko hondakin organikoen, saneamendua eta animalia gorotzen gestioa eta berrerabilpena* proposatzeagatik eta Hezieko elkarteak bigarren saria izan zuen *Zizare-hazkuntzak: izadiak zaborrik ez* proiektuagatik.

Bozka bidezko saria

Bestalde, antolatzaileek www.urkome.com webgunearen bidez bozka emateko aukera eskaini zuten. Itsaso Gilek eskuratu zituen 3.000 euroak hondakin organikoak berriz erabili ahal izateko landutako egitasmoarekin.

Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko diputatuak, Rafa Uribarrenen esanetan “Baserritarrak landa eremuan lanean behar ditugu preziatua den gure natura babesteko. Horregatik, pozgarria da jakitea jende gaztea dabilela proiektu berritzaileak sortu asmoz. Iñaki Errazkin Ingurugiro Etxea Fundazioko presidentek, aldiz, landa eremuak gaur egun dituen bi erronka nagusiak aipatu zituen: “Gizarteak lan hori aitortzea eta aurrera begira funtzio horretan ingurumena aintzat hartzea eta errespetatzea”.

Martxoaren 4ean Udalbatza osoak egindako bilkuran honako erabakiak hartu ziren:

1.- 2010eko urtarrilaren 28an egindako bilkuraren akta onartzea.

2.- Euskararen erabilera gehitzeko asmoz Azpeitiko Udalaren eta Gipuzkoa Donostia Kutzaren arteko hitzarmena onartzea.

3.- Urrestillako Altuna eremuan kale berriari izena ematea.

4.- 4/2009 Foru Arauaren ondorioz Trakzio Mekanikodun Ibilgailuan Gaineo Zergaren ordainkizunak zehazteko funtsezko osagaiak arautzen dituen zerga agintaraudia egokitzea: hasierako onarpena.

5.- 2009 ekitaldiko aurrekontuaren baitan 7. kreditu aldaketaren berri ematea, kreditu transferentzien bidez.

6.- 2009 ekitaldiko aurrekontuaren baitan Udal Kirol Patronatuaren I zenbakia duen kreditu aldaketaren berri ematea.

7.- 2009 ekitaldiko aurrekontuaren luzapena.

8.- 2010eko martxoaren 8an ospatuko den Emakumeen Nazioarteko egunerako adierazpen instituzionala onartzea.



SARIA INGURUGIRO ETXEA FUNDAZIOKO SARIAK

2. postua (1.000 euro)

Zizare-hazkuntzak: Izadiak zaborrik ez.

Egilea: Heziako Elkartea

1. postua (2.000 euro)

Etxeko hondakin organikoen, saneamenduaren eta animali gorotzen gestioa eta berrerabilpena.

Egilea: Itsaso Velasco

NEKAZARITZA JARDUERAREN GARAPENA

2. postua (1.000 euro)

Izarraitz mintegia.

Egilea: Ioritz Igarataundi

1. postua (2.000 euro)

Euskal oiloaren hobekuntza eta hazkuntza.

Egilea: Iñaki Izeta

LANDA EREMUETAKO BIZI KALITATEAREN HOBEKUNTZA

2. postua (1.000 euro)

Etxeko uren berrerabilera.

Egilea: Leire Markuerkiaga eta Gorka Ibañez

1. postua (2.000 euro)

Iragazi biologikoak erabiliz eta lonbrikultura teknikekin hondakin likidoak inertizatze teknika berrien garapena.

Egilea: Heziako elkartea

AKTIBITATE EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIOA

2. postua (1000 euro)

Zizare haragia txerrien elikagaiaren moduan.

Egilea: Heziako elkartea

1. postua (2000 euro)

Labeldun behi-haragia oinarri duen zerri gantzik gabeko jaki hotzaren garapena.

Egilea: Urkaiko kooperatiba

LANDA EREMUKO FUNTZIOEN ZEHAZTAPEN ETA EZAGUTZA

2. postua (1.000 euro)

Lursailak egokitu flora eta fauna aldetik ekosistema desberdinak garatzeko.

Egilea: Jon eta Jokin Salegi

1. postua (2.000 euro)

Zuhaitzak mozteko irizpideak eta garaiak zehaztea

Egilea: Aitor Larrañaga

BEREZIA (3.000 EURO)

Etxeko hondakin organikoen, saneamenduaren eta animali gorotzen gestioa eta berrerabilpena.

Egilea: Itsaso Velasco

MARTXOA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22 _{/29}	23 _{/30}	24 _{/31}	25	26	27	28



17, asteazkena

Martxoaren 17tik 28ra

Argazki Elkarteak erakusketa

XXXI. Argazki Lehiaketa

"Juan Antxieta 2010"

18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

BERTSO ASTEA

ERNIARRAITZ 10 URTE

700 URTEURRENA dela eta...

Mahaingurua:

Bertsolaritza Urola bailaran, historian zehar:

19:30ean

Lekua: Enparan Dorretxea

19, ostirala

SAN JOSE JAIK - LOIOLAN

Zezen Txikiak eta Poniak-Asto lasterketa
Herri Kirolak

XXIX. SAN JOSE SARIA

Kategoria: juniorrak (Gipuzkoa mailakoa)

16:00etan

Irteera: Plaza Nagusia

20, larunbata

DVD EMANALDIA

Planet 5 I

17:00etan

500 dias juntos

22:00etan

Lekua: Betharram Aretoa

BERTSO ASTEA

ERNIARRAITZ 10 URTE

Bertso Afaria

20:30ean

Ziripot Elkartea

SAN JOSE JAIK - LOIOLAN

21:00etan - Auzo Afaria eta Elus-
tondo anai-arrebak

21, igandea

Udaleko Gazteri Sailak antolatua-
rik haurrentzat emanaldia

Lekua: Udaletxeko Arkupetan

Ordua: 12:00

DVD EMANALDIA

Planet 5 I

17:00etan

500 dias juntos

19:30ean

Lekua: Betharram Aretoa

24, asteazkena

700. urtemugako Hitzaldia

Azpeitiarren hizkera

Hizlariak: Patxi Goenaga + Badihardugu

19:30ean

Lekua: Sindikatu Zaharra

26, ostirala

ZINE KLUBA

Filmea: KIMUAK LABURMETRAIAK

21:30ean

Lekua: Betharram Aretoa

27, larunbata

NAZIOARTEKO XVII. AZKOITIA-

AZPEITIA MARATOI ERDIA

Irteera: Azkoitian

16:30ean

Helmuga: Azpeitian (Hotel Loiola aurrean)

28, igandea

Azpeitiko Musika Bandaren

konzertua

13:00etan

Lekua: Udaletxeko Arkupetan

DVD EMANALDIA

Salvaje

17:00etan

Buscando a Eric

19:30etan

Lekua: Betharram Aretoa

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Martxoaren 4, 8, 13, 14, 16, 29 eta 31ean.

ARANBURU. Enparantza nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Martxoaren 2, 15, 22, 23, 24, 25, 26, 27 eta 29an.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Martxoaren 2, 11, 19, 20, 21 eta 30an.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Martxoaren 5, 9, 12 eta 17an.

JACOME. Gamendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Martxoaren 1, 6, 7, 10 eta 18an.

